

ULTIMATE

Materiala: Frisbeea eta petoak.

Jokatzeko era:

Jolas eremua eskubaloi edo futbitokoa da egokiena joko honetarako; frontoian ere egin daiteke, hango marraz erabiliz. Jokalariak bi taldetan banatuta, partida hasieran talde bakoitzak bere area barruan egon behar du. Talde batek bere areatik aterako du frisbeea eta bere taldeko bati pasatzen saiatu. Frisbeek zelai erdia gainditzen ez badu, beste taldekoek aterako dute jausi den lekutik. Tanta lortzeko, jokalaria batek area kanpotik aurkakoen arean dagoen bere taldeko bati pasatu behar dio frisbeea.



Arautegia:

1. Frisbeea duena ezin da ibili. Baina frisbeea eskuetan izanik, oin baten inguruan pibota daiteke.

2. Frisbeea, lurra ukituz gero, beste taldearentzat izango da. Jausi den lekutik aterako da. Besoa altxatuz, 3 metroko tarte librea eska daiteke, eroso ateratzeko.

3. Frisbeea alboko marretatik kanpora botaz gero, beste taldekoek aterako dute.

4. Frisbeea duena ezin da ukitu, ezta frisbeea eskutik kendu ere.

FALTAK: Frisbeea eskutik kentzea, frisbeek lurra ukitzea, eta kontrarioari bultza egin edo jotzea.

